

FUNTSEZKO BAZKIDEAK

Funtsezko aktibo horiek funtsezkoak dira gure negozio-ereduaren jardunerako eta iraunkortasunerako, eta esperientzia integrala eta baliotsua bermatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoan eta haratago enplegua eskatzen duten gazteentzat.

StartWorking-en, elkarrekin lan egiten dugu hezkuntza-erakundeekin eta enpresekin, gazteei aukerarik onenak emateko, horrela ikasketak amaitzen dituztenean lan aukera zuzena eskuratu dezakete eta normalean mundu laboralean dauzkaten arazoak konpontzeko.

Eskolekin eta prestakuntza-zentroekin elkarlanean aritzen gara, horrela eskola eta instituzio akademikoetan etorkizuneko langileen gaitasunak eskuratu ditzazkegu modu efektiboago batean eta lanpostuetara bideratu ditzazkegu ikasleak eraginkortasun handiagorekin. Aldi berean ,enpresa mota guztiekin elkartzen gara (enpresa, txikiak, ertainak eta handiak), gure erabiltzaileentzat lan-aukera gehiago sortzeko eta gaur egun dituzten aukera murriztu hoiak gure plataformarekin zabaltzeko eta hedatzea.

Hezkuntza-erakundeekin lan egiten dugunean, tresna seguruak erabiltzen ditugu informazioa eskuratzeko. Horrek bermatzen du lan-aukerei buruzko informazioa modu eraginkor eta seguruan partekatzea eta langileen eta enpresen informazioa kudeatzeko, antolatzeke eta bideratzeko ahalmena eskuratzen dugu IAren bidez.

Hori dela eta, IAren funtzionamendu eta eraginkortasun optimoa izateko IA eta teknologian adituak diren teknikoek laguntza izango dugu, lagunduko dizkigutenak baliabide hauei errentagarritasun handiena ateraten.

Azkenengoz, gure plataformaren segurtasuna bermatzeko, hainbat informazio baliagarria eta garrantzitsuarekin lan egiten dugulako, segurtasun informatikoan aritzen diren enpresekin lan egingo dugu segurtasun maila altua izan dezan webgunea horrela eraso zibernetikoei aurre egiteko.